

KANPO MERKATARITZAREN ESTATISTIKA (KAMEE). 2021eko urria

Euskal AEko ondasunen esportazioak % 14,6 hazi ziren 2021eko urrian

2021eko lehen hamar hilabeteetako esportazioen metatua % 22,3 hazi da urtetik urtera eta 4.000 milioi eurotik gorako superabita izan du

Euskal AEko ondasunen **esportazioek** % 14,6ko igoera izan zuten **2021eko urrian**, Eustatek landutako datuen arabera. Produktu energetikoen esportazioak % 434,7 hazi ziren, eta produktu ez-energetikoenak (balio osoaren % 94), berriz, % 9,3.

Nabarmentzekoa da, hilabete horretan, “Produktu mineral eta energetikoen” (% 372,4), “Metalak eta haien manufaktura” (% 20,1) eta “Plastikoak eta kautxuaren” (% 12,4) gorakada. Guztira, esportazioak 2.292,6 milioi eurokoak izan ziren, eta aurreko urteko hilabete berean, berriz, 2.001,3 milioi eurokoak.

Inportazioek % 44,5eko hazkundea izan zuten 2021eko urrian, eta 2.031,6 milioi euroko balioa izan zuten. Inportazio energetikoak % 194,6 igo ziren, eta ez-energetikoak, % 22,4.

Euskal AEko ondasun kanpo-merkataritzaren bilakaera. Milaka eurotan. 2021eko urria

	ESPORTAZIOAK			INPORTAZIOAK		
	Urria			Urria		
	2020	2021	Δ %	2020	2021	Δ %
EUSKAL AE						
HILEAN GUZTIRA	2.001.253	2.292.630	14,6	1.406.024	2.031.624	44,5
PRODUKTU ENERGETIKOAK	24.849	132.878	434,7	180.644	532.122	194,6
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	1.976.404	2.159.751	9,3	1.225.380	1.499.502	22,4
URTEKO METATUA	17.157.778	20.983.982	22,3	12.920.762	16.937.345	31,1
PRODUKTU ENERGETIKOAK	783.405	1.114.932	42,3	2.430.137	3.581.225	47,4
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	16.374.373	19.869.050	21,3	10.490.625	13.356.120	27,3
ARABA / ÁLAVA						
HILEAN GUZTIRA	663.139	687.359	3,7	425.620	421.034	-1,1
URTEKO METATUA	5.118.461	5.994.642	17,1	2.979.683	3.649.753	22,5
BIZKAIA						
HILEAN GUZTIRA	693.193	862.223	24,4	651.527	1.199.582	84,1
URTEKO METATUA	6.383.069	8.412.640	31,8	6.997.828	9.530.032	36,2
GIPUZKOA						
HILEAN GUZTIRA	644.922	743.048	15,2	328.877	411.008	25,0
URTEKO METATUA	5.656.248	6.576.700	16,3	2.943.251	3.757.559	27,7

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Lurraldeak

Esportazioen hazkunderik handiena **Bizkaian** izan zen, % 24,4koa, “Metalak eta haien manufaktura” (% 10,2) eta, batez ere, “Produktu mineralak eta energetikoak” (% 403,3) igo zirelako. Azken horiek, 108 milioiko igoerarekin, lurralde horretan esportatutako guztizkoaren % 15,7 izan ziren hilabete horretan. **Gipuzkoan** igoera % 15,2koa izan zen, “Metalak eta haien manufaktura” (% 35,8), “Papera eta haren manufaktura” (% 30,8) eta “Garraio-materiala” (% 15,2) igo zirelako. **Arabian** ere balantzea positiboa izan zen, % 3,7ko igoerarekin, aurreko hileko jaitsiera

txikia gaindituz (-% 0,8); joera-aldaketa hori “*Metalak eta haien manufakturen*” % 26,1eko gorakadari esker gertatu da, nahiz eta “*Garraio-materialak*” pixka bat atzera egin duen (-% 3,6).

Inportazioei dagokienez ere, **Bizkaian** izan da igoerarik handiena (% 84,1), “*Produktu mineral eta energetikoen*” (% 190,3) eta “*Metalak eta haien manufakturen*” (% 85,5) erosketek gora egin dutelako, aurreko urtean baino 360,8 milioi gehiago. **Gipuzkoan**, gorakada % 25,0koa izan zen, batez ere, “*Metalak eta haien manufakturak*” (% 36,5) eta “*Material elektrikoa*” (% 25,4) igo zirelako; **Araban**, berriz, % 1,1eko beherakada izan zen, “*Material elektrikoa*” (-% 16,2), “*Garraio-materiala*” (-% 18,8) eta “*Optika- eta doitasun-aparatuak*” (-% 41,1) oinarri hartuta, nahiz eta % 57,0ko hazkundera izan “*Metalak eta haien manufakturen*” inportazioetan.

Jarduera-adarrak (A 86)

Jarduera-adar garrantzitsuenak aztertuta, eta esportazioei dagokienez, “*Kokeria eta petrolio-fintzea*” (% 420,3) eta “*Produktu siderurgikoak*” (% 54,6) ugaritu egin dira urrian; azken kasu horretan, fenomeno hiru lurraldeetan gertatu da, baina batez ere Gipuzkoan (% 96,3) (88,8 milioi esportatuak) eta Bizkaian (% 57,8) (130,2 milioi). “*Ontzigintzak*” ere hazkunde handia izan du hil horretan, Gipuzkoan batez ere, % 10 milatik gorako tasarekin, eta 39 milioiko salmentekin. “*Motordun ibilgailuen fabrikazioarekin*” lotutako produktuek % 9,1eko atzerakada izan dute (2020ko urrian baino 49 milioi gutxiago). Azken jarduera-adar hori –lehena esportazio-rankingeant– jaitsi egin da hiru lurraldeetan, batez ere Gipuzkoan (-% 24,5) eta Bizkaian (-% 22,5); Araban, berriz, jaitsiera ez da hain nabarmena (-% 3,5).

Inportazioei dagokienez, jarduera-adarrak garrantzitsuenak, “*Erauzketa- eta petrolio-industriak*”, (guztizkoaren % 25,2), % 305,5eko hazkundera izan du. “*Produktu siderurgikoen*” erosketan ere hazkunde handia izan da (% 98,4), eta “*Erabilera orokorreko makineriaren*” kasuan, hazkunde arinagoa (% 8,7) izan da. Era berean, azpimarratzekoa da, hilabete horretan, “*Hondakinen saneamendua eta kudeaketak*” izan duen hazkunde nabarmena (% 91,4), aurreko urteko hilabete berean inportatutakoaren balioa ia bikoiztu egin baita.

Partida garrantzitsuenak

Xehetasunetara jaitsiz, “*Petrolioaren olio finduetarako*” (% 585,8) esportazioen urtetik urterako hazkundeak egiaztatu dira, aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta 92 milioiko gehikuntzarekin, baita “*Trenbideak eta antzekoak mantentzeko edo zerbitzatzeko ibilgailuen*” kasuan ere (% 4.713,2). Hauen esportazioak ere hazi egin dira: “*Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak*” (% 121,5), “*Beroan laminatutako produktu lauak, aleatu gabeko burdinazkoak edo altzairuzkoak, 599 mm-tik gorako zabalerakoak*” (% 148,0), “*Transformadore elektrikoak, bihurtutako estatikoak eta erreaktantzia-bobinak*” (% 157,1) eta “*Landu gabeko aluminioa*” (% 124,0).

Aduana-zergen partidetako batek, garrantzitsuenen artean izan ohi denak, “*Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak*”, hilabete horretan ere (lau aurretik) hazkunde-tasa negatiboak izan ditu; % 14,5 jaitsi da, eta bere esportazioak 26,6 milioi murriztu dira, aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta.

Euskal AEko muga-zergen partida esportatzaile nagusiak (milaka euro) (p). 2021eko urria

	2020	2021	2021 %	2021/2020 (%)
Guztira	2.001.253	2.292.630	100	14,6
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	192.231	185.228	8,1	-3,6
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	182.751	156.180	6,8	-14,5
Automobilitzako zati eta osagarriak	158.301	141.393	6,2	-10,7
Petrolioaren olio finduak	15.694	107.631	4,7	585,8
Kautxuzko pneumatiko berriak	84.127	94.160	4,1	11,9
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	30.692	67.983	3,0	121,5
Trenbideak edo antzekoak mantentzeko edo zerbitzatzeko ibilgailuak	1.082	52.063	2,3	4.713,2
Txorrotetarako artikuluak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	43.825	46.339	2,0	5,7
Arrantza-itsasontziak eta itsasontzi faktoriak itsas produktuen tratamendurako		37.775	1,6	-
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	22.798	36.137	1,6	58,5
Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak...	18.746	32.973	1,4	75,9
Burdina edo altzairuzko gainerako enbusturak	27.305	29.375	1,3	7,6
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	32.188	28.955	1,3	-10,0
Altzairu herdoilgaitzeko barra eta profilak	18.148	27.030	1,2	48,9
Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	18.639	26.246	1,1	40,8
Transformadore elektrikoak, bihurtzaile estatikoak eta erreaktantzia-bobina	8.902	22.884	1,0	157,1
Landu gabeko aluminioa	9.893	22.165	1,0	124,0
Ardoa, mahats freskoarena	25.275	22.127	1,0	-12,5
Beroan ijeztutako produktu lauak, aleatu gabeko burdinazkoak edo altzairuzkoak, 599 mm-tik gorako zabalera	8.623	21.381	0,9	148,0
Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	55.062	20.751	0,9	-62,3
Gainerako altzairu aleatuen barrak eta profilak eta zultzeko barra hutsak	16.463	20.654	0,9	25,5
Hariak, isolatutako eroale elektrikoak kableak eta zuntz optikoko kableak	17.089	19.583	0,9	14,6
Aduana-tarifa berariaz jasota ez dauden merkantziak	11.152	19.114	0,8	71,4
Eskuzko erremintetarako tresna trukagarriak edo makina-erremintetarako	13.549	17.092	0,7	26,1
Kobreko zakarrak eta hondakinak	12.455	16.793	0,7	34,8

(p) Behinbehineko datuak

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Inportazioen kasuan, hazkunde nabarmena egiaztatu da hauetan: *“Petrolioaren eta mineral bituminosoen olio gordinak”* (% 314,0), aurreko urtean baino 332 milioi eta 485.828 tona gehiago, aldi bererako, *“Petrolio-gasa eta gainerako hidrokarburo gaseosoak”* (% 379,3) 60.553 tonako eta 52 milioi euroko urtetik urterako hazkundearekin, 2020ko urrikoaren aldean (13,8 milioitik 66 milioira) eta hazkunde hori *“Gas naturalarena”* izan da soilik. Era berean, nabarmen indartu dira hauen inportazioak: *“Beroan laminatutako produktu lauak, aleatu gabeko burdinazkoak edo altzairuzkoak, 599 mm-tik gorako zabalera”* (% 224,2), *“Burdinurtuzko, burdinazko edo altzairuzko txatarra”* (% 115,5) eta *“Artoa”* (% 690,5).

Aldiz, inportazioetako muga-zergen 25 partida nagusien artean, hauen beherakadak nabarmentzen dira: *“Petrolioaren olio finduak”* (-% 56,3) eta *“Enboto, diesel edo erdi-diesel motorrak”* (-% 48,9).

Helmugakoljatorriko herrialdeak

2021eko urrian, bost herrialde (Frantzia, Alemania, Estatu Batuak, Erresuma Batua eta Belgika) dira Euskal AEko bezero nagusiak, guztizkoaren % 49,8. Horietako hiru EB27koak dira, Euskal AEko esportazioen % 62 biltzen duen entitatekoak.

Herrialde hornitzaile nagusiak hauek izan dira, hile horretan: Alemania (293 milioi), Frantzia (193 milioi), Mexiko (127 milioi), Txina (123 milioi) eta Italia (103 milioi), eta bosten artean inportatutako guztizkoaren % 41,3 biltzen dute.

URTEKO METATUA

Euskal AEko kanpo-merkataritzak 4.000 milioi eurotik gorako superabita metatu du 2021eko lehen hamar hilabeteetan

2021eko lehen hamar hilabeteetan, Euskal AEko ondasunen esportazioak % 22,3 hazi ziren (aurreko urtean baino 3.826 milioi gehiago), eta 20.984 milioi eurora iritsi ziren. Beste hilabete batez, pandemiaren aurreko zifren azpitik gaudela egiaztatu da; izan ere, aintzat hartutako aldirako, 2019ko balioak baino 253,7 milioi euro txikiagoak dira.

Inportazioen metatua 16.937,3 milioi eurokoa izan zen urrira arte, hau da, aurreko ekitaldiko epe berean baino 4.016,6 milioi gehiago; % 31,1eko hazkundera, beraz.

Euskal AEko kanpo-merkataritzak 4.046,6 milioi euroko saldo positiboa izan zuen 2021eko lehen hamar hilabeteetan, eta estaldura-tasa % 123,9koa izan zen.

Euskal AEko ondasun kanpo-merkataritzaren bilakaera. Milaka eurotan. Urtarrila - Urria 2021

	ESPORTAZIOAK			INPORTAZIOAK		
	Urtarrila - Urria			Urtarrila - Urria		
	2020	2021	Δ %	2020	2021	Δ %
EUSKAL AE	17.157.778	20.983.982	22,3	12.920.762	16.937.345	31,1
HILEAN GUZTIRA	783.405	1.114.932	42,3	2.430.137	3.581.225	47,4
PRODUKTU ENERGETIKOAK	16.374.373	19.869.050	21,3	10.490.625	13.356.120	27,3
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	5.118.461	5.994.642	17,1	2.979.683	3.649.753	22,5
ARABA/ÁLAVA	6.383.069	8.412.640	31,8	6.997.828	9.530.032	36,2
BIZKAIA	5.656.248	6.576.700	16,3	2.943.251	3.757.559	27,7
GIPUZKOA						

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Lurraldeak

Bizkaia nabarmendu zen aldi horretan bere esportazio-jardueragatik, urte arteko % 31,8ko igoerarekin ondasunen salmenten buru baita, 8.412,6 milioi eurora iritsiz. **Arabak**, hazkundera % 17,1koa izan zen (5.994,6 milioi), eta **Gipuzkoan** % 16,3koa (6.576,7 milioi).

Inportazioei dagokienez, portaera antzekoa izan zen hiru lurraldeetan: **Bizkaia** % 36,2ko igoera izan zuen eta 9.530,0 milioi euroko balioa zuten ondasunak inportatu zituen; ondoren, **Gipuzkoak** 3.757,6 milioi euro eta % 27,7ko igoera izan zuen; eta, azkenik, **Arabak** % 22,5 eta 3.649,8 milioioko ekarpena egin zion Euskal AEko zenbateko osoari.

Produktuak

Produktu-mota kontuan hartuta, *Produktu ez-energetikoak* izan ziren esportazioen urtetik urterako hazkundera gehien bultzatu zutenak (3.495 milioi) (% 21,3); *Produktu energetikoak* ere aurreko urtean baino 331,5 milioi gehiago eman zituzten (% 42,3).

Bestalde, *Produktu energetikoen* inportazioak % 47,4 igo ziren, eta *Produktu ez-energetikoenak*, berriz, % 27,3.

Helmuga-herriak

Euskal AEko esportazioen xede diren herrialdeen rankingean, aldi horretan, Alemania da buru, esportatutako guztizkoaren % 16,2rekin, ondoren Frantzia (% 16,0), Erresuma Batua (% 6,8), Estatu Batuak (% 6,1) eta Belgika (% 5,3). Bost herrialde horiek 10.570 milioi eurekin biltzen dute Euskadiko esportazioen erdia (% 50,4). Estatu horiei Italia (% 5,2), Herbehereak (% 5,0), Portugal (% 4,3), Txina (% 2,7) eta Polonia (% 2,4) gehitzen badizkiegu, 2021eko lehen hamar hilabeteetako guztizko metatua 14.674 milioi eurora iristen da, eta Euskal AEko esportazio guztien % 70,0 da.

Jarduera-adarrak (A 86)

Jarduera-adar garrantzitsuenen artean, esportazio-bolumena dela-eta, “*Siderurgia*” nabarmentzen da, % 45,9ko gehikuntza izan baitu aurreko urteko aldi berarekin alderatuta, 726,6 milioi euro gaindituz eta 2.310 milioira iritsiz. Nabarmen hazi da hauen esportazioa ere: “*Nekazaritza eta abeltzaintzako produktuak*” (% 160,9), “*Burdinazkoak ez diren metalak*” (% 48,9), “*Kokeria eta petrolio-fintzea*” (% 42,3), “*Material eta ekipo elektrikoak*” (% 22,0), “*Kautxuzko produktuak*” (% 19,3) eta, bereziki, “*Ontzigintza*” (% 1.268,6).

“*Motordun ibilgailuen fabrikazioarekin*” zerikusia duten produktuen adarrak (4.513,4 milioi eta guztizkoaren % 21,5) % 14,2ko hazkunde metatua izan du 2021eko hamargarren hilabetearen amaieran, aurreko urteko aldi berean baino 561 milioi gehiago.

Inportazioei dagokienez, nabarmentzekoa da adar garrantzitsuenak, “*Erauzketa-industriak eta mineralak*” –petrolio gordina– % 31,3 hazi dela, eta ondoren datozenak ere hazi egin direla, batez ere “*Siderurgia*” (% 55,5) eta, modu nabarmenean, “*Kokeria eta petrolio-fintzea*” (% 133,9) –petrolio findua–.

Partida garrantzitsuenak

Xehetasunetara jaitsiz, ikus daiteke, esportazioen barruan, aduana-zergen 25 partida nagusietatik bik soilik dituztela hazkunde-tasa negatiboak: “*Burdinazko edo altzairuzko hodi eta profil hutsak, soldadurarik gabekoak*” (-% 21,0) eta “*Trenbideetarako edo antzekoetarako ibilgailuen zatiak*” (-% 14,8); aduana-zergen gainerako partidetarako tasak positiboak dira, eta, duten garrantziagatik eta pisu espezifikogatik, hauek nabarmentzen dira: “*10 pertsona baino gutxiagoko turismoak*” (% 16,2), “*Ibilgailu automobilen zatiak eta osagarriak*” (% 26,4), “*Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak*” (% 5,6), “*Petrolioaren olio finduak*” (% 38,9) eta “*Kautxuzko pneumatiko berriak*” (% 15,9). Partida horiek osatzen dute gure esportazioen talde nagusia. Guztira, 6.221,6 milioi euro metatu dira, hau da, Euskal AEko esportazioen % 29,6.

Inportazioei dagokienez, azterketa bera egiten badugu, nabarmentzekoa da “*Petrolioaren olio finduen*” erosketen gorakada handia (% 128,1); aztertutako aldian 785 milioi euro metatzen dituzte; aurreko urteko aldi berean, berriz, 344. Hala, horrek esan nahi du 1.103 tonatik 1.690 tonarako hazkundera izan dutela.

**Euskal AEko arantzel-partida esportatzaile nagusiak. Milaka euro (p).
Metatua urtarrila - urria 2021**


	2020	2021	2021 %	2021/2020 (%)
Guztira	17.157.778	20.983.982	100	22,3
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	1.516.728	1.762.029	8,4	16,2
Automobilentzako zati eta osagarriak	1.149.281	1.452.900	6,9	26,4
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	1.119.094	1.181.473	5,6	5,6
Petrolioaren olio finduak	679.451	943.775	4,5	38,9
Kautxuzko pneumatiko berriak	760.811	881.410	4,2	15,9
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	282.864	512.592	2,4	81,2
Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	397.143	501.281	2,4	26,2
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafak eta tirak	223.713	311.889	1,5	39,4
Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	340.672	290.217	1,4	-14,8
Burdina edo altzairuzko gainerako manufakturrak	216.933	280.978	1,3	29,5
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	314.155	248.031	1,2	-21,0
Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	139.107	222.596	1,1	60,0
Landu gabeko aluminioa	81.028	221.041	1,1	172,8
Gainerako altzairu aleatuen barrak eta profilak eta zulatzeko barra hutsak	139.963	207.322	1,0	48,1
Altzairu herdoilgaitzezko barra eta profilak	158.119	203.468	1,0	28,7
Transformadore elektrikoak, bihurtzaile estatikoak eta erreaktantzia-bobina	135.121	195.725	0,9	44,9
Hariak, isolatutako eroale elektrikoak kableak eta zuntz optikoko kableak	127.626	193.616	0,9	51,7
Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak...	177.165	186.902	0,9	5,5
Ardoa, mahats freskoarena	163.150	185.720	0,9	13,8
Beroan ijeztutako produktu lauak, aleatu gabeko burdinazkoak edo altzairuzkoak, 599 mm-tik gorako zabalera	56.036	184.675	0,9	229,6
Aduana-tarifan berariaz jasota ez dauden merkantziak	101.672	181.728	0,9	78,7
Transmisio-ardatzak, kojinetak, engranajeak, enbrageak...	151.955	168.488	0,8	10,9
Kobre findu gabe; fintze elektrolitikoak kobre anodoak	151.476	165.580	0,8	9,3
Metal arruntzeko giltzarriak, sarriak, morroiloak eta giltzak	145.769	162.899	0,8	11,8
Ontziak eta paketatzeko aparatuak garbitzeko, betetzeko, ixteko, etiketatzeko makinak	131.111	161.135	0,8	22,9

(p)Behinbehineko datuak

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren bilakaera

Milioi Euro



Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Informazio gehiagorako

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62